

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 30ean**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: "Ikastetxe-lik" garatzeko eta finantzatzeko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, ogasun informazio batzordearen diktaminatua 2023ko martxoaren 21ean.

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: "Ikastetxe-lik" garatzeko eta finantzatzeko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea.

2023ko martxoaren 21ean egindako ogasun batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, ogasun batzordeko idazkariak eta kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

"6.- "Ikastetxe-lik" garatzeko eta finantzatzeko lankidetzaren hitzarmena

Alkateak hartzen du hitza "Ikastetxe-lik" hitzarmenaren ezaugarriak azaltzeko:

...*Debagoiena eskualdeko hainbat udalerrri, erakunde publiko eta eragile nagusiak (Debagoieneko Mankomunitatea, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, FAGOR S.COOP., Ulma Talde Kooperatiboa, Mondragon COOP, Goiena Komunikazio Taldea Koop. Elkarte, Garaia Parke Teknologikoa Koop Elkarte, Saiolan SA eta Agirre Lehendakaria Fundazioa) "Debagoieneko Berrikuntza Irekiko Plataforma" proiektuaren ingurura bildu ziren....*

...*Lankidetzaren testuinguru horretan, aurreko puntuan aipatutako erakundeek "D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA" sinatu zuten 2020ko uztailaren 22an, eta hitzarmena sinatzeko konpromisoa hartu zuten, "D2030 Garapen Iraunkorrekoko Sarea" bultzatzeko....*

...*2020ko irailean, D2030 Gobernu Batzordeak eskualdean energia trantsizioa bultzatzeko prozesu bat sustatzeko ekimena onartu zuen. Prozesuaren helburua da eskualdeko eragileen artean energiak planteatzen duen erronka aztertzea eta lankidetzaren oinarritutako hainbat ekintza diseinatzea eta garatzea ("portfolio")....*

...*Energia Portfolioan egin beharreko proiektuen artean "IKASTETXEKLIK" dago. Ikastetxeetan energiaren aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzea du helburu, hezkuntza komunitate osoarekiko lankidetzaren bidez eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Balio pedagogiko handiko tresna da, pertsonen parte hartzean oinarritua eta ahalduntzean oinarritua. Egokia da kultura berri baten balioak barneratzeko, energia eta ur kontsumoak optimizatzeko, aurrezki ekonomiko handiak lortzeko eta ingurumen inpaktuak nabarmen murrizteko.*

...LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da IKASTETXEKLIK proiektua gauzatu eta finantzatzeko lankidetzaren esparrua ezartzea. Proiektua Oñatiko ikastetxe hauetan garatuko da:

- Oñatiko Institutua BHI.
- Elkar Hezi Ikastetxea.

Ikastetxeetan energiaren aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da, hezkuntza komunitate osoarekin lankidetzaren eta parte-hartze aktiboan oinarritua.

...
Oñatiko Udalak proiektuaren funtzionamendu- eta inbertsiogastuak finantzatzeko ditu,

GIZABIDEA elkarteari 3.500 euroko dirulaguntza emanez. Horretarako, adostutako ekarpena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera gutziak egin beharko ditu....

...Lehen aipatutako 40/2015 Legearen 49.h) artikulua arabera, hitzarmen 2023. urteko indarraldia izango du. Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hitzarmena amaitzea. ...

“Ogasun Batzordeak, aho batez, Oñatiko Udalaren eta Gizabidea Funadazioaren arteko Ikatetxe-klik lankidetzaz hitzarmena onartzearen aldeko irizpena ematen du, dirulaguntza 3.500,00 €koa izanik, diru-atala 1115 eta bere lotespen-maila, eta iraupena urtebetekoa, gehienez beste lau urtez luza daitekeena.”

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

-48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

5. Finantza-konpromisoak jasotzen dituzten hitzarmenek finantzen aldetik jasagarriak izan beharko dute, eta sinatzen dutenek gaitasuna izan beharko dute hitzarmenaren indarraldian beren gain hartutakoak finantzatzeko.

6. Sinatzaileek hitzarmena dituzten finantza-ekarpenak ezingo dira izan hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastuak baino handiagoak.

7. Hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen badu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatzeko den autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusitakoa bete beharko du.

8. Alderdiak adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikusitako ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregelak hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraupen zehatzak izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikuluak) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulua hau:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatuzko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Halaber, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak, 3. artikuluan 1 eta 2. artikuluan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta ogasun batzordearen irizpenarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- “Ikastetxeklik” garatzeko eta finantzatzeko lankidetzaz hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea.

Bigarrena.- Hitzarmen honek, urte bateko iraupena izango du, eta beste 4 urteko luzapena izan dezake, bi alderdiek espreski hori adosten baldin badute.

Hirugarrena.- Oñatiko alkatea izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko.

Laugarrena.- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

Bosgarrena.- Hitzarmen honen gastua (3.500,00 €) onartzea 1115 diru-atala eta bere lotespen-maila, kontuan hartuta diru-laguntza emateko ezinbestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea ebazpena emateko unean. Hurrengo lau urteetarako hitzarmenetik eratorritako betebeharrei erantzuteko behar den kreditua gorde eta gaitu beharko da.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunei eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntza zuzen hau, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Zortzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta akordio honekin zerikusia duten beharrezko agiriak sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitaletan ageri den datan.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

